

TOLOSA / Irakurketa sustatzeko kanpaina Haur Liburutegian. 'Harrotasunez irakurri' lelopean, umeei tatuajeak banatuko dizkiete maileguekin.

Erredakzioa

Tolosako Haur Liburutegiak Eusko Jaurlaritzak antolatutako irakurketa kanpainan hartuko du parte, Harrotasunez irakurri izeneko ekintzan, hain zuzen ere. Umeei zuzenduriko kanpaina hau iragan ostiralean abiarazi zuten eta hiru astez luzatuko dute. Helburua umeengan irakurketarekiko grina piztea izango da; hori dela eta, besoan edota gorputzeko beste ataletan itsatsita eramateko tatuajeak banatuko dizkiete umeei, maileguan emandako liburua itzuli eta irakurri dutela diotenentzat. Itsagarriak, beraz, liburu bat irakurri dela esan nahi du, hau da, irakurtzeak arrastoa uzten duela adierazi nahi diete gazteei.

Tatuaje honen irudia egitasmoaren logoa izango da. Banaketaren hiru asteetan zehar puntuak metatzeko aukera izango dute gaztetxoek tatuaje gehiago eskuratu ahal izateko.